

ZALDIBIKO UDALA

Iragarkia

Zaldibiko Udaltzarrak, 2011ko martxoaren 15ean egin-dako osoko bilkuran, erabaki zuen haserako onespena ematea Obra txikien lizentziari eta jakinaren gainean jartzeko obrei buruzko ordenantzari, jendeaurreko epea pasa onodoren erreklamaziorik ez bada ezartzen onspen hau behin betikoa izango dela esanez

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, onartutako testua argitaratzen da.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita; egoki irizitako beste edozein errekurtsio jartzeari utzi gabe.

Aplikatzekoa den legeria: Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldaturia) 116. eta 117. artikuluetan; eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arautzen duena, 46. artikuluan xedatutakoa

Zaldibia, 2011ko azaroaren 16a.—Jose Antonio Etxabe Nazabal, Alkatea. (11975)

ERANSKINA

Obra txikien lizentziari eta jakinaren gainean jartzeko obrei buruzko Ordenantza.

Arrazoibidea.

Horrek ordea, administrazioko prozesuak erraztu eta argitzea eskatzen du, izapide burokratikoak kendu eta izapidaketa bera sinplifikatuz, gaiak arintasunez ebazte eta aldi berean iharduerak burutzean ordenamendu juridikoak betetzea bermatuz, beti ere, tratamendu-berdintasuneko printzipio, zergatien kongruentzia eta helburu zurigarri eta norbanakoaren askatasunetik abiatuta.

Lizentzi ematea, Herri-administrazioak hiritarren ihardueran duen eskusartzearen kasurik ohizkoenetakoa da, administratuak alde aurretik duen eskubidearen prebentzio eta aitortze-nezko kontrol-egintza den heinean, izan ere, bere bitartez enkaitzen baitira Legeak ezarritako mugak. Egintza horrek, iharduera jakin bat egikaritzeko ezarritako debekua altxatzea du ondorioztat.

Hirigintzako legeria, eta zehazki esanda Lurzoru eta Hirigintza 2006/2 Legeko 207. artikulua eta Hirigintzako Disziplina Erregelamenduko (HDE/RDU) 1. artikulua, ordenamendu-egitasmo eta ordenantzek adierazten dituztenez gainera, udal-lizentzipean dauden egintzak biltzen dituzte.

Udal honek egokitzen duen obra txikietarako lizentzien eskaera, izapidaketa eta egikaritzapen-kontrola erregulatzea, horien barnean obra-maila berri bat sortuz, hots, jakinaren gainean jartzeko obrena, hirigintza-ordenamenduan duten eragin txikia dela bide, Udalarari jakinaraztea baino eskatzen ez duten obrentzat.

1. Ordenantza honen helburua beraz, obra txikien eta jakinaren gainean jartzeko obren hirigintza-lizentzien eskaerak, izapidaketak eta egikaritzapen-kontrolak erregulatzea da.

AYUNTAMIENTO DE ZALDIBIA

Anuncio

El Ayuntamiento de Zaldibia, en sesión plenaria celebrada el 15 de marzo de 2011, resolvió aprobar inicialmente la ordenanza sobre la licencia de obras menores y los enterados de obra, señalando que quedaría elevada a definitiva en el caso de que, una vez transcurrido el tiempo de exposición pública, no se presentara ninguna reclamación.

En consecuencia, en cumplimiento del artículo 70.2 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, se publica el texto aprobado.

La resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, desde el día en que se publica el anuncio, sin perjuicio de cualquier otro recurso que se pueda presentar.

Legislación aplicable: Ley 30/1992 del 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (reformada por la ley 4/1999 del 13 de enero), artículos 116 y 117; y Ley 29/1998 del 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, art. 46.

Zaldibia, a 16 de noviembre de 2011.—El Alcalde, Jose Antonio Etxabe Nazabal. (11975)

ANEXO

Ordenanza sobre la licencia de obra menor y el enterado de obra.

Justificación.

Resulta necesario facilitar y dilucidar los procesos administrativos, suprimir los trámites burocráticos y simplificar la tramitación, resolviendo los temas con agilidad y garantizando el cumplimiento del ordenamiento jurídico al realizar las actividades, siempre y cuando se parta del principio de tratamiento de igualdad, congruencia con respecto a las causas, justificación de objetivos y libertad personal.

La concesión de una licencia es uno de los casos más comunes de la intervención de la administración en la actividad de los ciudadanos, en cuanto que se trata de un acto de control de prevención y reconocimiento del derecho previo; de hecho, se ajustan a través del mismo los límites marcados por la Ley. Ese acto tiene como fin el levantamiento de la prohibición para realizar una actividad concreta.

La legislación urbanística, y más concretamente, el artículo 207 de la ley 2006/2 de Suelo y Urbanismo y el artículo 1 del Reglamento Disciplinario de Urbanismo, además de los señalados por el proyecto de ordenación y las ordenanzas, albergan los actos que están bajo licencia municipal.

Este Ayuntamiento considera oportuno regular la solicitud, tramitación y realización de licencia para obras menores, e introduce un nuevo rango de obra, es decir, los que están bajo el concepto de los enterados de obra, para obras que requieren simplemente la comunicación al Ayuntamiento, debido a un impacto menor.

1. Por tanto, el fin de esta ordenanza es la regulación de las solicitudes de licencia urbanística, su tramitación y los procedimientos de control de las obras menores y enterados de obra.

2. Ordenantza honetan zehar erabiltzeko, honako definizio hauek ematen dira:

Obra txikiak, eraikinaren egitura edo funtsezko elementuak erasaten ez dituztenak; teknika soil eta eraikuntza- nahiz ekonomi neurri eskasekoak direnak eta bolumenaren, erabilpen subjektiboen, instalazioen eta erabilpen komunekin zerbitzuen, etxebizitzak edota areto-kopuruen aldaketarik ez dakartenak eta eraikinaren kanpoko diseinua, zimentuak, egitura edo segurtasuna nahiz era guztietako obra-instalazioak erasaten ez dituztenak.

Jakinaren gainean jartzeko obrak, garrantzi gutxiko obrak direnak eta alde zuzeneko lizentziatik salbu izanik, Udalarri jakinarazteko beren berri ematea beste beharrik ez dutenak.

3. Jakinaren gainean jartzea baino behar ez duten obrakasuak, honako hauek dira:

3.1. Etxebizitzaren barruko aldaketa-obrak, egitura-elementuen aldaketarik gabe.

3.2. Leiho-aldaketak, lehengo kolore, forma eta tamainak mantenduz.

4. Jakinaren gainean jartzea baino behar ez duten obretatik kanpo gelditzen dira, eraikin historiko-artistikoak izateagatik inbentarioetan edota katalogoetan sartuta dauden eraikinetan egiten diren obrak eta baita Planeamenduko Arau Subsidiarioetan ordenazioz kanpo izendatu eta kalifikatutako eraikinetan egitekoak ere eta baita egurrezko estruktura duten eraikinak ere.

5. Obra horietako edozein egiteko ere, herri-bidean aldamiola jarri beharra denean, horretarako baimena eskatu egin beharko da.

6. «Jakinaren gainean jartzeko obrak» deitzen artekoren bat egiten hasi nahi duen pertsonak, Udalarri horren berri emango dio eta Udalarri horretarako prestatutako instantzia (1. eranskina) bete beharko du, edota horren ordez, Erregistroan idazkia aurkeztu beharko du, ondorengo zehaztasun hauek dituela:

— Eskatzailearen identifikazio-datuak.

— Eskara egiteko erabilitako nortasuna (jabea, maizterra, ahalmenduna, kontratista).

— Egin behar dituen obrak: Deskribapena eta kokapena.

— Obren aurrekontua.

— Eskatzailearen sinadura eta data.

Aurkeztutako dokumentuak, Udaleko teknikariek egiaztatuko dituzte eta herri-bidearen okupazioaz, bidezkoak iruditzen zaizkien aldaketak egin ahal izango dituzte.

7. Informazio-bulegoan, «Jakinaren gainean jartzeko obra»-ri dagokion agiria emango zaio eta horren bidez kreditatuko da Udalarri obrak egiteko jakinarazpena bete beharra bentean bete izana.

8. Obra txikien lizentzi eskaerak, 6. artikulua aipatzen dituen datuak izateaz gainera, beste agiri hauek ere berekin izan beharko ditu:

Egin asmo diren obren memoria eta kasua bada erasandako finak izango duen iharduera-erabilpenaren zertarakoaren adierazpena, dauden azalera erabilgarri eta eraikien koadro deskribatzailea barne duela.

Egin behar diren obren krokis kotadunak, goitiko bista, aurretiko bista eta sekzioak edo ebakidurak dituztela, eta era berean obra horiek egin behar diren eraikinak edota bere zatiek duten egungo egoerarenak ere.

2. Se dan las siguientes definiciones para la descripción de dicha ordenanza:

Obras menores, son las que no inciden en la estructura o elementos fundamentales del edificio; las que requieren una técnica simple y tienen una dimensión constructiva o económica menor, y que no conllevan cambios en el volumen, uso subjetivo, instalaciones y servicios de uso común, y que no afectan al diseño exterior, cimentación, estructura o seguridad o instalaciones de obra de cualquier tipo.

Los enterados de obra, bajo este concepto se reúnen las que, siendo obras de una importancia menor y no necesitando licencia previa, requieren únicamente que se comuniquen al Ayuntamiento.

3. Los casos de obras que no requieren sino ser comunicadas son los siguientes:

3.1. Obras de reforma dentro de la vivienda, sin cambio de elementos de estructura.

3.2. Cambio de ventanas, manteniendo el color, la forma y las dimensiones anteriores.

4. Quedan fuera de los enterados de obra, las obras que se realizan en los edificios histórico-artísticos que están inventariados o catalogados, así como los que las Normas Subsidiarias determinan que están fuera de ordenación y los edificios con estructura de madera.

5. Para cualquiera de esas obras, cuando se precisa instalar un andamio en la vía pública, deberá solicitarse permiso.

6. La persona que quiera realizar una obra incluida en el «enterado de obra» comunicará al Ayuntamiento y el Ayuntamiento deberá cumplimentar la instancia preparada ad hoc (anexo 1), o si no, deberá presentar escrito en el registro, con los siguientes datos:

— Datos de identificación de la persona solicitante.

— Naturaleza con la que presenta la solicitud (propietario o propietaria, arrendatario o arrendataria, apoderado o apoderada, contratista).

— Obras que va a realizar: Descripción y ubicación.

— Presupuesto de obras.

— Firma de la persona solicitante y fecha.

Los documentos presentados serán comprobados por los técnicos del Ayuntamiento, que podrán realizar los cambios pertinentes en lo que a ocupación de vía pública se refiere.

7. En la oficina de información se facilitará el documento de «enterado de obra» y así se acreditará que se ha cumplido con la obligación de notificar la realización de obras.

8. La solicitud de licencias de obras menores debe contar con los datos indicados en el artículo n.º 6 y los documentos que se citan a continuación:

La memoria de las obras a realizar y, en su caso, la comunicación del objetivo de uso de la actividad que tendrá la finca afectada.

El croquis con cotas de las obras -alzado, planta y secciones-, así como de los edificios o partes de estos en que se ejecutarán las obras.

9. Eskaerak eskatutako betebeharrak betetzen ez baditu, pertsona interesatuari 10 eguneko epean zuzentzeko eskatuko zaio. Zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertanbehera uzten duela ulertuko da eta espedientea beste izapiderik egin gabe artxibatu egingo da, Herri Administrazioen eta Administrazio Orokorreko Ihardunbidearen Erregimen Juridikoko (HAAOIEJ/LRJAPPAC) 30/92 Legeko 42.1 artikuluan adierazitako ondorioekin.

10. Alkatea edota berak ordezeko izendatutakoa izango da obra txikien espedienteak ebazteko eskuduntza duena.

11. Obra txikia egiteko lizentzia emateko epea, jakinarazpena aurkeztu ondorengo egunetik zenbatutako hilabetekoa izango da. Epe horretan idatzizko ebazpenik izan ez bada, ontzat emantzat hartuko da, baina ontzat emate horren eraginkortasuna, balizko egintzaren ziurtagiria lortzearen menpe egongo da eta Udalak epe horren barruan, espresuki ebatzi ahal izango du egun indarrean den legeriaren arabera.

Xedapen arruntak

12. Obren neurriak ez dira jabekideen esparrutik irtengo eta beren edozein eratako mugaz kanporatzea ere, hirigintzako arau-haustetzat hartuko da.

13. Obrak egikaritu bitartean egin nahi litzatekeen edozein aldaketa ere, Udalari jakinaraziko zaio.

14. Edozein Teknikarik sarrera librean izango du obretara obrak egiten ari diren bitartean sartzeko eta obrak lizentziari edota jakinaren gainean jartzeko obrari dagozkien xehetasunei doitzen zaizkiela egiaztatu ahal izateko. Horregatik, «Jakinaren gainean jartzeko obra-agiria» edota lizentzia, obra dagoen lekuan edukiko dira egiaztapena egiten den une berean aztertuak izan daitezten.

15. Lanak egitean, eraikuntza-praktika onak aholkatzen dituen aurreneurriak eta eraikuntzako industri lanerako Segurtasun eta Higiene Erregelamenduan aurrikusiak kontuan hartuko dira.

16. Lizentzia eskatzea eta lortzea, egun indarrean den legeriaren arabera derrigorrezkoak diren gainerako baimenen kalterik gabe ulertuko da.

17. Lizentzi emateetan edota jakinaren gainean jartzeko obretan obrak hasteko eta obrak egikaritzeko eperik finkatzen ez denean, epe hori hilabetekoa dela ulertuko da jakinaren gainean jartzeko obrentzat eta hiru hilabetekoa lizentzientzat. Obrak amaitzeko berriz, bi kasuetan ere 6 hilabeteko epea izango da.

18. Lizentzien zergaren zenbatekoa, Ordenantza Fiskalek finkatuko dute, eta jakinaren gainean jartzeko obrak ez dute zergarik izango lizentzia ez delako.

Agiria emateko egintzan egindako kopuru horien abonua, kontura egindako sarrera-izaera duena izango da eta lizentziaren titularraren derrigor-tua geldituko da obra amaitzean obraren benetako kostua aitortzera, kasuari dagokion likidazio osagarria egin ahal izateko.

Udal-zerbitzuek murtzilo edo erreklamazio horien egiaztotasuna egiaztatu ahal izango dute eta obrak egiten eskuhartu duten pertsona guztiei, aurrekin, ziurtagiri edota kostua zehazteko beste edozein agiri-mota eskatu ahal izango diete.

19. Arau hauek, argitaratu ondorengo egunean sartuko dira indarrean eta deseman edo derogatzen ez diren bitartean indarrean jarraituko dute.

9. Si la solicitud no cumple los requisitos, se otorgará un plazo de 10 días para su corrección a la persona interesada. Si no procede a la corrección, se entenderá que desiste de su solicitud y se archivará el expediente sin más trámite, con los efectos del artículo 42.1 de la ley 30/92 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

10. El alcalde o alcaldesa, o la persona que haya designado en su representación, será quien resuelva los expedientes de obras menores.

11. El plazo para conceder licencia de obra menor será de un mes a partir de la fecha en que se presenta la notificación. Si en ese plazo no se produce una resolución escrita, se considerará que ha sido aprobada la solicitud, pero la efectividad de esa aprobación estará supeditada a la consecución del posible acto y el Ayuntamiento en ese plazo podrá resolver de acuerdo con la legislación vigente.

Disposiciones comunes

12. Las dimensiones de la obra no excederán del espacio de los copropietarios, y si se produce un exceso se considerará como una infracción urbanística.

13. Cualquier modificación que se pretenda realizar mientras dura la obra deberá notificarse asimismo al Ayuntamiento.

14. El personal técnico tendrá acceso libre a las obras mientras duren las mismas y podrá comprobar que las obras se ajustan a la licencia o al enterado de obra. Por tanto, “el documento de enterado de obra” o la licencia, deben estar en la obra para que puedan ser analizados cuando se realice la comprobación.

15. En la realización de los trabajos, se tomarán las medidas previas que recomiendan las buenas prácticas en la construcción y las previstas en el reglamento de Seguridad e Higiene en el Trabajo para la industria de la construcción.

16. La solicitud y consecución de la licencia se entenderá sin perjuicio del resto de permisos que son preceptivos según la legislación vigente en cada caso.

17. En la concesión de licencias o enterados de obra, si no se especifica el plazo de comenzar y realizar las obras, se entenderá que ese plazo es de un mes para los enterados de obra y de tres meses para las licencias. En ambos casos, el plazo para finalizar las obras es de 6 meses.

18. El importe de la tasa de la licencia lo determinarán las Ordenanzas Fiscales, y, los enterados de obra no pagarán impuesto al no tratarse de licencias.

El abono de la cantidad correspondiente al documento, se realizará mediante ingreso en cuenta y la persona titular de la licencia quedará obligada a mostrar el coste real de la obra, para poder realizar la liquidación correspondiente al caso.

Los servicios municipales podrán comprobar la veracidad de los recursos o reclamaciones y podrán solicitar a todas las personas que han intervenido en la obra, antecedente, certificados o cualquier otro documento que concrete el coste.

19. Estas normas devengarán vigentes al día siguiente de su publicación, y se mantendrán en vigor hasta que se retiren o deroguen.

Obra jakinaren gainean jartzeko

Eskatzailearen izen-deiturak:.....

NAN:

Helbidea:

Tfinoa:

Obren deskripzioa:

Obren Helbidea:

Aurrekontua:

Zaldibian, 201.....ko.....aren.....an

*Obra jakinaren gainean jartzeko**Espediente zbkia:**Eskatzailearen izen-deiturak:*.....*NAN:**Helbidea:**Tfinoa:**Obren deskripzioa:**Obren Helbidea:**Aurrekontua:*

Obra txikien lizentzia eta jakinaren gainean jartzeko obrak erregulatzeko dituen Ordenantza xedatuaren arabera, Informazio-bulegoak, Agiri hau ematen du. Agiri hau, hirugarrenen kalterik gabe ematen da eta ematen zaion pertsonaren erantzukizunpean soilik eman ere, beti ere, aipatutako finkaren jabeak, adierazitako obrak egiteko espresuki baimena emanda egonda.

Agiri hau ematen zaion pertsonak, «Jakinaren gainean jartzeko obrak» Ordenantza erregulatuarekin jasotako betebeharrak guztiak eta bakoitza betetzeko obligazioa du.

Obren edota instalazioen neurriak, ez dira adierazitakoak baino handiagoak izango eta horietatik irtetea hirigintzako arau-hauste zigorgarri gisa hartuko da. Obra egiterakoan egin nahi den edozein aldaketa ere, jakinarazi egin beharko da.

Obra egiterakoan, eraikuntza-praktika onak aholkatzen dituen aurreneurriak eta eraikuntzako industri lanerako Segurtasun eta Higiene Erregelamenduan aurrakusiak kontuan hartuko dira.

Obra egiterakoan lagungarri gisa erabili beharreko bitartekoak herri-bidea hartzen dutenean, komenigarri den moduan seinaleztatuta gelditu beharko dute istripurik gerta ez dadin. Eskatzaileak seinaleztapen-elementuak behar duten segurtasun- eta apaindura-egoeran mantentzeko obligazioa izango du.

Eskatzaileak istripu-kasuetarako Erantzukizun Zibileko Asegurua eduki beharko du, edota obrak egiteko kontratatua izan den pertsonari eskatuko zaio.

Agiri hau duen eskatzaileak edota etorkizunean izango lukeen pertsonak, obrak ikuskatzeko ardura duten agente edota pertsona teknikoek eskatutako kasu guztietan erakusteko obligazioa izango du eta eskatutako betebeharrak hau ez betetzeak, agintaritzaren agentei ez obeditzearen ondoriozko erantzukizunetan sarraraziko du.

Data:

Sinatua:

Bulegoa.

Enterados de obra

Nombre y apellidos de la persona solicitante:

DNI:

Dirección:

Teléfono:

Descripción de las obras:

Dirección de las obras:

Presupuesto:

Zaldibia, de de 201....

AL PRESIDENTE O PRESIDENTA DE LA COMISION DE GESTIÓN

Enterados de obra

Nº de expediente:

Nombre y apellidos de la persona solicitante:

DNI:

Dirección:

Teléfono:

<i>Descripción de las obras:</i>

Dirección de las obras:

Presupuesto:

Según lo dispuesto en la ordenanza que regula la licencia de obras menores y los enterados de obra, la Oficina de Información expide este documento, el cual se otorga sin perjuicio de terceros y bajo única responsabilidad de la persona a la que se otorga, siempre y cuando el propietario o propietaria de la finca haya otorgado expresamente permiso para ejecutar las citadas obras.

La persona que recibe este documento tiene que cumplir todas y cada una de las obligaciones de la Ordenanza reguladora de “los enterados de obra”.

Las dimensiones de las obras o instalaciones no serán mayores que las señaladas, y el no cumplimiento de lo indicado podrá devenir en sanción por infracción urbanística. Cualquier cambio que se quiera realizar una vez comenzada la obra, deberá notificarse asimismo.

En la realización de las obras, se tomarán las medidas previas que recomiendan las buenas prácticas en la construcción y las previstas en el reglamento de Seguridad e Higiene en el Trabajo para la industria de la construcción.

Cuando los medios auxiliares de las obras invadan la vía pública, deberán quedar señalizados de modo conveniente a fin de que no se produzca ningún accidente. La persona solicitante tendrá la obligación de mantener los elementos de señalización en el estado de seguridad y apariencia apropiado.

La persona solicitante deberá contar con el Seguro de Responsabilidad Civil, o bien se solicitará a la persona que ha sido contratada para realizar las obras.

La persona solicitante que posee este documento o quien lo porte en el futuro, tendrá la obligación de mostrarlo en todos los casos en los que lo soliciten los agentes o técnicos, y el incumplimiento de dicha obligación producirá la responsabilidad tipificada como desobediencia a los agentes de la autoridad.

Fecha:

Firmado:

Oficina.